



Gazteriaren Foru Erakundea
Instituto Foral de la Juventud

- ▶ ARABAKO FORU ALDUNDIA
- ▶ DIPUTACIÓN FORAL DE ÁLAVA

GAZTERIAREN FORU ERAKUNDEA

Administrazio Kontseiluaren buruaren 208/2021 Ebazpena, urriaren 1ekoa, Arabako Foru Aldundiaren erakunde autonomoa den Gazteriaren Foru Erakunderako aldi baterako lan poltsa zabaltzeko aukeraketa-prozesurako deialdia.

Gazteriaren Foru Erakunderako hurrengo aldi baterako lan poltsa zabaldu behar da:

- Aterpetxeko zuzendaria

Hori dela eta, Enpresa Batzordearekin dagokion deialdia egitea adostu da, ALHAOaren bidez.

Horregatik guztiagatik, ondoko hau hartu da:

EBAZPENA

Lehenengoa.- Gazteriaren Foru Erakundeko lanpostuaren zerrendako Aterpetxeko Zuzendaria aldi baterako lan-poltsa zabaltzeko deialdia onartzea.

Bigarrena.- Prozesua arautuko duten oinarri orokorrak eta espezifikokoak onartzea.

Hirugarrena.- Deialdi hau ALHAOn argitaratzea onartzea.

Gasteiz, 2021eko urriaren 1a
Kultura eta Kirol diputatua
ANA MARIA DEL VAL SANCHO

**GAZTERIAREN FORU ERAKUNDEKO, ARABAKO FORU ALDUNDIAREN ERAKUNDE
AUTONOMOA, ALDI BATERAKO LAN-POLTSA ZABALTZEKO AUKERAKETA PROZESUA
ARAUTUKO DUTEN OINARRI OROKORRAK.**

1.- Xedea.

1.1.- Oinarri hauen xedea GFEko lanpostu honetako aldi baterako lan-poltsa zabaltzeko arau orokorrak ezartzea da:

- Aterpetxeko Zuzendaria

1.2.- Ezarritako betekizunak egiaztatzen ez dituzten izangaiak ezin izango dira inola ere lan-poltsan sartu.

2.- Izangaien betekizunak

2.1.- Izangaiek ondoko puntuetan azaltzen diren baldintzak bete beharko dituzte eskabideak aurkezteko epearen amaiera-egunean.

2.2.- Hona hemen deialdian onartua izateko baldintzak:

- a) Eskabideak aurkezteko epea bukatzen denerako Europar Batasuneko estaturen bateko nazionalitatea izatea, edo Europar Batasunak sinatu eta Espainiak berretsitako nazioarteko hitzarmenen arabera langileen joan-etorri librea aplikagarri zaion herrialderen batekoa izatea. Orobat parte hartu ahal izango dute Europar Batasuneko estatuetakoren bateko hiritartasuna dutenen ezkontideek –zuzenbidez banatuta ez badaude–, baita haien ondorengoek nahiz ezkontideenek ere, baldin eta bi ezkontideak zuzenbidez banatuta ez badaude eta ondorengo horiek hogeita bat (21) urtetik beherakoak badira edo adin horretatik gorakoak izanda ere gurasoen kontura bizi badira.
- b) Eskabideak aurkezteko epea bukatzen den egunean, hamasei (16) urte beteta edukitzea eta nahitaezko erretiro-adina ez izatea.
- c) Dagozkion egitekoak normal betetzea eragozten dion gaixotasun edo muga fisikorik ez izatea, alde batera utzita 29ko 1/2013 Legegintzako Errege Dekretuaren ezarpena, desgaitasuna duten pertsonen eskubideei eta haien gizarteratzeari buruzko Lege Orokorraren Testu Bategina onartzen duena.
- d) Lanposturako eskatzen den titulu ofizialaren edo homologatuaren jabe izatea edo titulua lortzeko eskubideak ordainduta izatea. Atzerriko titulua izanez gero, horren homologazioa egiaztatzen duen agiria eduki beharko da.
- e) Funtzio publikoak egiteko desgaituta ez egotea, ez eta edozein Herri Administrazioetako zerbitzutik diziiplina espediente bidez bananduta ere. Atzerritarra izanez gero, norbere estatuan Funtzio Publikora sartzea galarazten duen diziiplina-zigorrik edo kondena penalik ez izatea.

- f) Indarreko arautegien arabera ezintasunerako edo bateraezintasunerako lege arrazoirik ez izatea, salbu utziz haien arabera dagokion aukera eskubidea.
- g) Oinarri espezifikoen eskatzen den beste edozein betekizun.

3.- Eskabideen aurkezpena

3.1.- Eskabideak aurkezteko epea eta modua.

Eskabideak deialdi honen eranskineko eredu ofizialaren arabera izango dira.

Inprimakia https://www.araba.eus/cs/Satellite/Juventud/es_ES/inicio/lantari_webgunetik deskargatu ahal izango da.

Eskatzaileek lehiaketan onartuak izan daitezzen egindako eskaerak Zuzendari-Kudeatzaileari bidaliko zaizkio:

- Posta elektronikoaren bidez (laboral.IFJ@araba.eus)
- Aurrez aurre, GFEn bulegoetan, Landazuri kalea, 3. Behea, GASTEIZ.

Eskaerarekin batera:

- Nortasun agiriaren fotokopia.
- Curriculum vitae.
- Eskatutako tituluaren fotokopia egiaztatua.
- Merezimenduak egiaztatzen dituzten agiriak aurkeztuko dira.

Jatorrizko agiri ez direnak egiaztatuta egon beharko dira.

Lan eskarmentua egiaztatzeko, lanean jardundako enpresa edo administrazioen dagokien agiria aurkeztuko da. Agiri horretan kontratuaren iraupena, arduraldia eta lanpostuan egindakoak adieraziko dira. Enpresa pribatuetan egindako lanak egiaztatzeko, aurrekoek gain, Gizarte Segurantzari egindako kotizazioak aurkeztuko dira.

Gazteriaren Foru Erakundeetan lanean emandako denbora legatu egin behar da, baina ez dago zertan egiaztagiririk aurkeztu. Erakundeak ofizioz zenbatuko du lan denbora hori.

Gainerako Herri Administrazioetan edo enpresetan lanean emandako denbora egiaztatzeko, haiek horretarako zehaztuta duten egiaztagiri ereduak erabiliko dira. Lanean emandako aldiak xehatuta eman behar dituzte, eta aldi bakoitzari dagozkion kategoria eta taldea adierazi beharko dira.

Halaber, hizkuntza eskakizuna egiaztatzen duen agiria aurkeztu beharko da.

Eskabideak **2021eko urriaren 22ra** arte aurkeztu ahal izango dira, egun hori barne. Behar bezala beteta eta agiri osagarriekin batera aurkeztuko dira aurretik aipatutako ataleko erregistroan, edo urriaren 1eko 39/2015 Legearen 16 artikuluan ezartzen den moduan.



4.- Izangaien onarpena. Erreklamazioak

Eskabideak aurkezteko epea bukatutakoan, Zuzendaria-Kudeatzaileak izangai onartuen eta baztertuen behin-behineko zerrenda onartzen duen ebazpena emango du. Ebazpen hori Gazteriaren Foru Erakundearen iragarki-taulan argitaratuko da eta egun horretatik aurrera, urriaren 1eko 39/2015 Legeak 68.1 artikuluan xedatutakoarekin bat etorriz, izangaiak hiru lan-egun izango dituzte erreklamazioak aurkezteko Gazteria eskumena duen Foru Diputatuari.

Erreklamaziorik aurkezten ez bada, behin-behineko zerrenda hori behin betiko bihurtuko da. Erreklamaziorik egonez gero, berriz, behin betiko zerrenda onartuko duen beste ebazpen baten bidez onetsi edo ezetsiko dira. Ebazpen hori ere adierazitako eran argitaratuko da.

5.- Kalifikazio batzordea.

5.1.- Epaimahaiko kideak eta haien ordezkioak Zuzendaria-Kudeatzailearen ebazpen bidez izendatuko dira. Izendapen horiek eta onartutako eta baztertutako behin betiko zerrenda batera argitaratuko dira.

5.2.- Ondokoek eratuko dute epaimahai kalifikatzailea:
Lehendakaria bat.
2 mahaikideak.
Mahaikide batek idazkari lanetan jardungo du.

5.3.- Abstentzioa eta errefusatzia
Epaimahaiko kideek uko egin beharko diote kide izateari, baldin eta urriaren 1eko 40/2015 Legearen 23. artikulua ezartzen dituen egoeraren batean badaude, eta horrela adieraziko diote deialdia egin duenari.

Era berean, horrelako egoeraren bat tarteko denean, interesatuek Epaimahaikideak errefusa ditzakete edozein unetan, aipaturiko legearen 24. artikuluan ezarritakoari jarraiki.

5.4.-Jarduteko arauak:
Epaimahaiak urriaren 1eko 40/2015 Legeko 15-18 artikuluetan ezartzen diren arauak lotuta jardungo du.
Erabakiak bertan daudenen botoen gehiengoz hartuko dira. Epaimahaiko kide guztiek izango dute hitza eta botoa. Berdinketak lehendakariaren kalitate-botoak apurtuko ditu.
Lehendakaria eta haren ordezkioa gaixorik daudelako edo legezko beste zergatiren batengatik agertzen ez badira, epaimahaiko beste kideren bat izango da haien ordezkio.
Horretarako honako lehentasun hurrenkera hau hartuko da kontuan: hierarkia, antzinasuna eta adina.
Postua hutsik dagoelako edo absentzia, gaixotasun edo beste legezko arrazoiren bat dela-eta, idazkaria falta bada, Epaimahaiko beste kide bat izango da haren ordezkio, Epaimahaiaren gehiengoak aukeratuta.

5.5.- Ahalmenak:
Epaimahaiak erabateko autonomia funtzionala izango du, eta beraren ardura izango da prozedura legezotasunez egin dadin zaintzea eta objektibitatea bermatzea.



Halaber, ordenamendu juridikoarekin bat etorriz, oinarri hauek aplikatzean sortzen diren zalantza guztiak ebatziko ditu eta deialdia behar bezala garatzeko beharrezko diren erabakiak hartuko ditu; azkenik, oinarrietan arautzen ez diren egoeretarako, behar diren irizpideak ezarriko ditu.

5.6.- Epaimahaiak jakinarazpen eta gorabehera guztietarako Gazteriaren Foru Erakundeaz izango du egoitza (Landazuri kalea, 3 behe. Vitoria-Gasteiz, Araba).

6.- Aukeratzeko prozedura

6.1.- Aukeratzeko prozedura orokorra lehiaketa izango da. Lehiaketa hori deialdiko oinarri espezifikotik xedatutakoaren arabera egingo da.

6.2.- Lehiaketa-aldia:

Epaimahaiko lehendakariak zehaztuko du dagokion epaimahaiak noiz eta zer ordutan aztertu lehiatzaileek aurkeztutako merezimenduak. Merezimendu horiek deialdiko oinarri espezifikotik xedatutako baremoen arabera balioztatuko dira.

Urte, sei hileko edo hilabetetan egindako denboraren arabera balioztatzen diren merezimenduak ondoko era honetan balioztatuko dira: alegatutako aldi guztietako egunen batuketa egingo da eta, hala egin ondoren, baliozko diren aldietatik beherako frakzioak ez dira aintzat hartuko. Batuketa horretarako, urteak 365 egun naturaleko balioa izango du; sei hilekoak, 180 egun naturalekoa, eta hilabeteak, 30 egun naturalekoa. Lehiaketa-aldia ez da kanporagarria izango.

6.3.- Berdinketarik gertatuz gero, hurrenkera ondoko irizpideen arabera zehaztuko da:

1.- Herri administrazioan, beronek kontratatuta, oinarri hauetan adierazten diren antzeko eginkizunak dituzten lanpostuetan, funtzionario bezala edo lan-kontratuko langile bezala – finkoa nahiz aldi baterakoa- egindako zerbitzuen atalean puntu gehien lortu duena,
2.- Lanpostu honekin loturiko eginkizunetako lan-esperientziaren atalean puntu gehien lortu duena.

3.- Alfabeto hurrenkera, oinarri hauek onartzean indarrean dagoen zozketa publikoan ateratako R letratik hasita. Langileak Estatuko Administrazio Orokorren zerbitzura sartzeko Arautegi Orokorra arautzen du zozketa hori.

7.- Langileen zerrenda eta aukeratutakoa.

7.1.- Merezimenduen balioespena bukatuta, epaimahaiak izangaien izenak jarriko ditu ikusgai iragarki taulan, azken puntuazioaren hurrenkerearen arabera ordenaturik.

7.2.- Deialdia ebatzi eta gero, izangaiak dagokion lan-poltsaren amaieran sartuko dira. Lan-poltsa hori aldi baterako langile baharrak estaltzeko erabiliko da eta Gazteriaren Foru Erakundeak ezarrita daukan arautegiari jarraituz kudeatuko da.



8.- Agirien aurkezpena.

Administrazio Kontseiluko lehendakaritzaren ebazpen bidez, prozesua gainditu duten izangaiekin poltsa sortzea onartuko da. Haiek, 5 lan-eguneko epearen barruan, ondoko agiri hauek aurkeztu beharko dituzte:

- Izangaiak lanpostuari dagozkion zereginak betetzez galarazten duen gaixotasunik edo akats fisikorik ez duela egiaztatzen duen medikuaren agiria. Izangai minusbaliatuek eskatzen dituzten lanpostuetako egitekoak betetzeko gai direla ziurtatzen duen agiria aurkeztu beharko dute.

Adierazitako epean, ezinbesteko arrazoiengatik izan ezik, izangaiak eskatzen diren agiriak aurkezten ez baditu, edo agiriak aztertuta gero eskatutako betekizunetako bat betetzen ez duela ikusten bada, lan-poltsatik kanpo utziko da, eta GFEaren iragarki taulan jarriko argitara emango da lan-poltsan sartzeko eskubidea duten pertsonen behin betiko zerrenda..

9.- Gorabeherak.

Sortutako zalantzak argitzeko ahalmena du epaimahaiak, baita lehiaketa behar bezala garatzeko behar dena erabakitzeke ere, oinarri hauetan nahiz legeri osagarrian xedatzen ez diren alderdiei dagokienez.

10.- Aurkatzea.

Oinarri hauek, deialdia bera eta horietatik zein auzitegien jardunetik datozen administrazio egintza guztiak Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 40/2015 Legeak epe eta eratan aurkatu ahal izango dira.